



Pasa den ostiral arratsaldean 20 urte luze baino gehiago Espainiako gartzeletan barrena espetxeratuta pasa ondoren Fernando Etxegaraik ongi merezita zuen ongietorria jaso zuen Barakaldoko jendearengandik. San Bizenteko parkean dozenaka pertsona bildu ziren musika eta duintasunez beteriko hitzen artean Etxegarai omentzeko.

Gogoratu beharra dago Fernando [beste 10 urteko zigorra](#) ezarri nahi izan ziotela kaleratu ondoren Parot Doktrina delakoagatik. Espetxeratu eta handik gitxira berriz ere kalean jartzeko. Berarekin izandako krudelkeriaz gain, "justizia" espainolak pertsona baten bizitzarekin nola jolasten duen oso kasu adierazgarria izan baita..

Beraz, ostiralean ospakizun bikoitza izan genuen.

Egun horretako zenbait pasarte ikusteko gure irudi-bilduman duzue: [Ongietorri Fernando Etxegarai argazkiak](#).